



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
2026/02/03



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/02/03

2025EKO ABENDUAREN 22AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2025eko abenduaren 22an, arratsaldeko 19:00tan, ondoren izendatzen diren jaun andereak Bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Iker Isiegas, Alaia Etayo, Mikaela Elizalde eta Javier Auza.

BERTARATU EZ DIRENAK: M^a Mar Ansorena.

Bertaratu da baita ere Isabel Iñarregi, Itsasoko kontzejuko alkatea.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDAA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Azaroaren 25eko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena, inork eragozpenik agertu ez duenez.

2.- Alkate ebazpenak.

Ondoren zehazten diren alkate ebazpena onartu ditu alkateak azkeneko hilabete honetan:

-2025/128 alkate ebazpena onartuz Amaia Ortiz Jaureguik aurkeztutako eskaera eta baimena ematea Luzia Goñi Kultur Etxeko anitzetako gela erabiltzeko asteartetan 16:30etatik 18:00etara txalaparta klaseak emateko.

-2025/129 alkate ebazpena Baimena emanaz Josu Beaumont Barberenari Apeztegi berriko adinduen gela erabiltzeko azaroaren 26an Sortu alderdiaren bilera bat egiteko.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
2026/02/03

SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/02/03

-2025/130 alkate ebazpena obra baimena onartuz M^a Jose Arzoz Labianori Arraratsko 14. Poligonoko 278. Lursailean dagoen Urrutia etxeko lehenengo pisuko leiho eta bigarren pisuko balkoiko ateak aldatzeko.

-2025/131 alkate ebazpena onartuz Gorka Oronozi zirkulazio zergaren hobaria eskaera %50koa NA2225AX matrikuladun autoarentzat.

-2025/132 alkate ebazpena onartuz Andoni Simon Arrek aurkeztutako eskaera eta 4562 DHV matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik.

-2025/133 alkate ebazpena onartuz obra baimena ematea Iñaki Rekondori Arraratsko Kastenea etxea eraberritzeko.

-2025/134 alkate ebazpena onartuz 2025eko azaroaren 14ko 115/2025 ebazpenaren bidez onartutako Zerga Ogasunak bidalitako balioak 2026ko kontribuzioak indarrean egoteko.

-2025/135 alkate ebazpena onartuz 3.000 euroko diru laguntza ematea Biraka Team Kirol Klu-arentzat, Basaburua MTB xenden mantenimendua egteagatik.

-2025/136 alkate ebazpena onartuz Begoña Aranok aurkeztutako eszedentzia luzatzeko eskaera 2026ko ekainaren 26a arte.

3.- 2026. Urteko tasen onespena.

Alkateak azaltzen die bildutakoei ogasun batzordeak 2026ko tasetarako kontribuzioa, JEZ zerga, gainbalioa eta EIOZ-aren zergak 2025eko berak mantentzea erabaki duela 2026. Urterako eta beste guztiak KPI-aren %2.7ko igoera aplikatzea, hirigintza tasak dezimalak ez izateko borobilduz. Hortaz horrela geldituko lirateke 2026. Urteko tasak:

URAREN TASAK:

- Ur kontsumoa 0.31 €/m³
 - Ur hornidura kuota: 22.55 euro (seihilabeteko)
 - Saneamendu kuota 22.55 euro (seihilabeteko)
 - Ur lotura 300.48 euro.
- Hiri kontribuzioa; 0.250
- EIOZ zerga %5ean finkatzen da. Aurreko urteko balorea mantentzen da.
- 1.20 eko erakuslea ezarri JEZ zerga kobratzeko
- GAINBALIOA. 2025. Urteko tipoak, egokituko dira 2022/36 Foru Legera kontutan hartuz karga % 25ekoa izanen dela.



BASABURUA

Egiaztapen-aseguru kodea: MDCA AAXE D9DX WWEK LPYV

2025-12-22 akta - SEFYCU 272054Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://basaburua.sedipualba.es/>

9tik 2 orrialdea



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/02/03



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/02/03

HIRIGINTZA TASAK

- Obra baimenen tramitazioa:

< 5000 aurrekontua: 57,00 €

>5000<15000: 77,00 €

>15000<30000: 154,00 €

<30000<60000: 231,00 €

<60000<150000: 287,00 €

>150000<300000: 385,00 €

<300000<600000: 462,00 €

Eranskina, zuinketa akta eta beste batzuk. 123,00 €

Udal arkitektoak sustatzaileek aurkeztutako dokumentazioaren inguruan egiten duen 4. Txostenetik aurrera txosten bakoitza 103 euro.

- Urbanizatuezin den lurreen eraikitzeko baimena: 123 €

- Sailkatutako jarduera baimena edo aitorpena arduratsua : 154 €

4D eranskineko jarduerak: 200 €

Ikuskaritza bisitak: 385 €

- Lehen erabilera baimenak, obra bukaerak: 257 €

- Irekiera baimena edo aitorpen arduratsua: 272 €

4A, 4B eta 4C eranskinetako jarduera sailkatuak 483 €

4D eranskineko jarduerak: 283 €

Ikuskaritza bisitak: 385 €

Eranskina: 82 €

- Lursailen zatiketa baimenak: 221 €

- Ikerketa edo memoriatarako hirigintza kontsultak, xehetasun azterlanak eta





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIOZ
2026/02/03



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/02/03

repartzelazio proiektuak: 231 €

- Udal Planaren aldaketa zehatzak: 267 €

- Hirigintza arauen aldaketa, plan partzialak :344 €

- Bestelako informeak, alegazioak: 205 €

JAUNSARATSKO POLIKIROLDEGIKO ARGIA ERABILTZEKO TASA .

- 2 euro/ordua frontoiko argia erabiltzeko.

- 3 euro/ ordua frontoiko argia erabiltzeko

- 5 euro/ ordua frontoiko argia erabiltzeko (frontoia eta kantxa).

UDAL ERAIKINETAN DAUDEN GELAK ERABILTZEKO TASA

Udaleko erakinen tasak KPIa ere igoko zaie 2026. Urterako.

TAXIAREN TARIFAK

Eguneko tarifa; gutxieneko tarifa 10 euro eta 0.73 euro* km ,

Gaueko tarifa, gutxieneko tarifa 12 euro. 0.91 euro* km

Gutxieneko tarifa 14 kilometroko ibilbidea izanzen du.

Bildutakoek hortaz onartzen dituzte goian zehaztutako 2026. Urterako tasak eta erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute.

4.- 2025eko aurrekontuaren aldaketak. Hasierako onespena.

Ogasun batzordean aztertu ondoren batzarrari luzatu zaio hasierako onespena, ondoren zehazten diren aurrekontu aldaketei:

-2025/1 aurrekontu aldaketa: Udal planaren berrikuspena partida sortu behar da aurrekontuan 26.190 euroko aurreikuspenarekin. Partida hau sortzearen beharra, uztailan behin behineko onartu zelako udal planaren aldaketaren testua da, eta hortaz azken zati honen faktura aurkeztu du arkitektoak eta faktura gehigarria 9.000 eurokoa BEZ kanpo, planoak GIS formatuan aurkezteko arau berria onartu duelako Nafar Gobernuak.. Partida hau sortuko da ez ohiko kreditu bidezko aurrekontu aldaketa bidez 1998/270 Foru Dekretuaren 35. Artikuluaren arabera





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/02/03

SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/02/03

“ Aparteko kredituak gastu-aurrekontuan egindako aldaketak dira, gastu zehatz eta zehatz bat egiteko kreditua esleitzen dutenak. Gastu hori ezin da hurrengo ekitaldira arte atzeratu, eta horretarako ez dago krediturik.

Aparteko kredituak eta kreditu-gehiagarriak honako baliabide hauetako batekin edo batzuekin finantzatu ahal izango dira:

C) Aurrekontuan dauden beste partiden bajekin, beti ere baja hauek ez badute zerbitzuen funtzionamenduan eragiten.“

Kasu honetan 2025eko aurrekontuan dago lharduera ekonomikoaren argi transformadorearen partida eta bertan 59.000 euro daude erabilgarriak, jada obra bukatua dagoelako eta ez delako dena gastatu, hortaz bi partideen artean 26.190 euroko transferentzia burutuko da.

-2025/2 aurrekontu aldaketa. Poriektuetarako memoriak(PIL eta Beste) partida ez zen aurreikusi aurrekontuan eta badaude 93815 euroko gastua bertan sartzeko.

Partida hau sortzeko ere kreditu transferentzia bidezko aurrekontu aldaketarekin sortuko da partida 35. Artikuluaren arabera, kontutan hartuta lharduera ekonomikoen guneko partidan badagoela 59.000 euroko soberakina, bertatik hartuko dira partida sortzeko beharrekokoak diren 9.815 euroak.

-2025/3 aurrekontu aldaketa. Arraratsko kontzejuak eskatutako maileguari aurre egiteko aptida ere sortu behar da, udan 40.000 euroko ordainketa egin zitzaion, epe motzeko mailegu bezala, hots herrikoetxeko etxebizitza berritzeko obraren dirulaguntza jasotzean udalari bueltatzeko baldintzarekin eta orain azaroan beste 40.000 euro ordaindu zaizkie, epe luzeko mailegu bezala. Kopuru honen zati bat ere diru laguntza jasotzean bueltatuko dute eta gelditzen dena urtero amortizatuko dute etxebizitzaren errentarekin. Partida hau sortzeko beharrezkoak diren 80.000 euro ez ohiko kreditu bidezko aurrekontu aldaketa bidez partida berria sortuko da eta beharrezkoa den tesoreria gerakinetik hartuko da. Partida hau ez ohiko kreditu bidezko aurrekontu aldaketa bidez egingo da, 1998/270 Foru Dekretuaren 35. Artikuluaren arabera baina diruzaintza gerakinaren kontura.

-2025/4 aurrekontu aldaketa. 2025eko aurrekontuan bai aurreikusi zen Sasturain etxeko egokitzen partida, baina honen kreditua murriztua ikusi da egin eta onartu diren obrak egireko, hortaz 142.529,83 euroko soberakina behar du partidak, eta 1998/270 Foru Dekretuaren 35 eta 36. Artikuluaren arabera suplemento de crédito bezala izapidetuko da aurrekontu aldaketa, diruzaintza geraikinari lotuz-

-2025/5 aurrekontu aldaketa. Aurreko kasuan bezala, partida bai dagoela aurrekontuan sartua baina aurreikuspena erreforma puntu baterako egin zen eta aldiz bi puntu jarri dira, noski Industria Departamentuko dirulaguntzarekin, bana gastua igo da eta partida osatzeko 2.502,23 euro falta dira. Hortaz kreditu transferentzia bidezko aurrekontu aldaketa proposatzen da egitea Eskolako jantokia begiraleko partidan gastatu ez diren 3.000 euroko soberakina erabiliz.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/02/03

SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/02/03

-2025/6 aurrekontu aldaketa.Ehiza antolatzeke planaren ordainketa egin da azaroan 3160 euroko ordainketa. Partida honen gastua udalerriko ehiztari elkarteak udalari ordaintzen dio, hortaz kopuru bereko sarrera bat dago ere azaroan.

Hortaz bi partida sortuko dira aurrekontuan, bat gastuetan eta bestea sarreretan. Kasu honetan aurrekontu aldaketa ere ez ohiko kreditu bidezko aurrekontu aldaketa da, baina kasu honetan finantziarioa 36 b puntuarekin lotzen da hots, sarrera berri edo haundituekin, aurrekontuan aurreikusitakoak baino haundiagoak badira kasu.

-2025/7 aurrekontu aldaketa.Aizarozko azpiegituren partidan 10640.18 euroko soberakina falta da, eta gastua Aizarotzen izan diren bi auto instripuekin lotzen dira farola berriak jartzearen gastu hau. Farola bakoitzaren gastua 5320.09 eurokoa da, eta kopuru berako sarrera izango du udalak sarreretan. Hortaz alde batetik partida horren gastua haunditu behar da 10640.18 eurotan eta bestetik sarreretan egun dagoen partida Aseguroen kalte ordainen partida, egun 100 eurokoa kopuru berean haundituko da. Hortaz eta 1998/270 Foru Dekretuaren 35 eta 36 artikulua jarraituz ez ohiko kreditu bidezko aurrekontua aldaketa egitea proposatzen da, sarrera gehiago dagoenez aipatutako Aseguroen kalte ordainen partidan.

- 2025/8 aurrekontu aldaketa.Aizarotzeko herrian eta PDR diru laguntzaren baitan haur eta nerabeen parkea berritu da. Gastua 21.470 eurokoa izan da eta honek ez du partidareik, Dirulaguntza 2026ko otsailean jaso behar da baina gastua 2025eko ekitaldian burutu behar da. Hortaz aipatutako gastuarentzat partida berria sortu behar da. Kasu honetan aurrekontu aldaketa kreditu transferentzia bidezko aurrekontu aldaketa izanen da eta partida hori sortzeko behar den kreditua lharduera ekonomikoaren guneko transformadorearen partidaren gerakinetik aterako da, bertan dauden 59.000 euroko gerakina erabiliz.

Ez ohiko kreditu bidezko aurrekontua aldaketa hauek ezin dira 2026. Urteko aurrekonturako utzi, partida berri gehienak diru laguntzarekin lotuta daudelako eta 2025. Ekitaldean justifikatu behar direlako.

Bildutakoek ongi aurrekontuen txostena ongi aztertu ondoren eta 1998/270 Foru Dekretuaren 35 eta ondorengo artikulua jarraituz hasiera batez onartzen dituzte 2025/1 2025/8 arteko aurrekontu aldaketak eta hasierako onespeneke erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialen argitaratua izan dadin agintzen dute.

5.- Aurreko urtetatik zintzilik dauden gastu eta sarreren preskribapena.

Alkateak azaltzen du gai hau ogasun batzordean aztertu dela, kontua da aurreko urtetako kontuetan badaudela gastu batzuk aspaliko urtetakoak ez direnak jada ordaindu behar preskribatuak daudelako eta ere sarrera batzuk urteen poderioz preskribatu beharrekoak. Bildutakoek aztertzen dute aipatutako gastu eta sarreren zerrenda eta kontabilitatea erreala izateko garbiketa bat eskatzen duenez,zerrendan agertzen diren gastu eta sarrerak preskribatuak daudenaren aitortza onartzen dute bildutakoek aho batez.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/02/03

SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/02/03**6.- Iharduera baimena Itsasoko 4. Poligonoko 431. Lursailean fruitu lehorren obradoreagiteko.**

Alkateak erakusten du SITNA bidez, iharduera baimen eskaera hau Itsasoko 431. Lursailean obradorea egiteko dela. Bertan ekoiztuko dira turroiak, fruitu lehorrekin egindako kremak eta beste.

Obra eta iharduera, etxearen biltegiaren zati batean egingo da, bertatik 18 m2ko obradorea egin nahi da, ekoizteko behar diren makinak jarriko dira, eta fruitu lehorrak kanpotik sartzeko sarbide zuzena izango du.

Iharduera baimenaren tramitazioa 2022/26 Foru Dekretuaren arabera egin da 48. Artikuluaren arabera, jendeaurreko epean egon da proiektua Nafarroako Aldizkari OFizialean agitaratu ondoren, urriaren 14an, 205. Naon.

Epe hori azaroaren 14an bukatu zen eta alegaziorik ez direnez aurkeztu eta Orekan enpresaren baieztoko txostena izanik, ez legoke oztoporik iharduera baimena onartzeko. Alpatutako txostenaren arabera, iharduera modu honetan egin beharko litzateke:

1.-Neurri zuzentzaileak eta baldintza teknikoak:
a. Suteen aurkako babesa (164/2025 ED)
- Establezimenduari 164/2025 Errege Dekretua aplikatuko zaio.
Azken ziurtagirian egiaztatuko da betetzen dela.
- Suebakien ateen eta El sabai faltsuaren egiaztagirien kopia aurkeztuko da.

2.-Kontrol- eta zaintza-programa:
a. Suteen aurkako babesa
164/2025 Errege Dekretuaren 13. artikuluen arabera, establezimenduaren titularrak bere instalazioen aldizkako ikuskapena eskatu beharko dio zeregin horietarako gaitutako kontrol-erakunde bati, Industria Kalitate eta Segurtasunerako Azpiegituraren Erregelamenduaren arabera. Segidako ikuskapenak, gutxienez, 5 urtean behin egin beharko dira.
Lehenengo ikuskapena egiteko epea zerbitzuan jartzea formalizatzen denean hasiko da zenbatzen, 11. artikuluen arabera.

3.-Isurtzeko muga-balioak:
a) Zaratak eta bibrazioak
- Uneoro bermatuko da ez direla gaindituko 1367/2007 Errege Dekretuaren III. eranskineko zarata-indizeak.

Hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia ahtzen dute:

- **Laura Martinena Espinali Itsasoko 4. Poligonoko 431. Lursailean fruitu lehorrak ekoizteko obradorea egiteko iharduera baimena ematea, izapidetzea 2022/26 Foru Dekretuaren 48. Artikuluaren arabera egin ondoren iharuera beti ere Orekan enpresaren txostenera egokituz.**
- **Erabaki hau sustatzaileari jakinarazi.**

7.- Bake epaile ordezkoren hautaketa.



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/02/03



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/02/03

Alkateak gogoratzen die biltudakoei berriro izapidetzea hasi zela urrian Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak bidalitako jakinarazpenaren arabera, irailaren 24ko batzarrean Iraultza Gillen izendatu ondorne. Beruak ez dituenenez bake epaile izateko baldintzak betetzen atzera bota zuen izendapena auzitegiak, hots berriro deia luzatu zen eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu azaroaren 17an, epe horretan ez da inor aurkeztu hortaz, bake epaileen legearen arabera hautagairik ez balego zozketa bidez oinartu behar da hautagaia.

Alkateak proposatzen du hurrengo batzarra arteko epea ireki, zinegotziek eta berak informazio hau zabaltzeko ea epe honetan norbait aurkezteko interesa duen. Bestela hurrengo batzarrean zozketa bidez egingo da hautaketa. Bildutakoek ontzat ematen dute proposamena.

8.- Basanet elkarte merkantilaren estatutuen aldaketa. Behin betiko onespena.

Alkateak adierazten du aurreko batzarrean onartu zirelaestatutuen aldaketa eguneko egoitzaren kudeaketa elkarte merkantiletik egiteko.. 3 eta 4. Artikuluen aldaketa egin da eta modu honetan geldituko dira aldaketaren ondoren:

“Artículo 3

La finalidad de la sociedad es lograr una mayor eficacia en la acción municipal.

Para ello, la sociedad tiene por objeto la prestación de los siguientes servicios:

La instalación y explotación de redes o la prestación de servicios de comunicaciones electrónicas del Ayuntamiento de Basaburua. Su código CNAE es 6110.

Desarrollo y gestión de servicios sociales de cualquier índole: residenciales, estancias diurnas, centro de día, talleres y programas de promoción de la autonomía, comedor social, y cualquier otro que pueda generar un beneficio en la propia comunidad. Su código CNAE es 8811.

Prestación de servicios o labores auxiliares en instalaciones en las que se presten servicios principales de carácter cultural, educacional o deportivo. Su código CNAE es 9311, 8551, 8552 y 8121.

La sociedad en cuestión será considerada a todos los efectos un medio propio y servicio técnico del Ayuntamiento para poder encomendarle la prestación de servicios que acuerde, dentro de su objeto social.

Artículo 4

Las actividades enumeradas en el artículo anterior podrán ser realizadas por la Sociedad de modo directo o indirecto, a través de su participación en cualquier tipo de asociación, con o sin personalidad jurídica, de objeto análogo o idéntico.”

Aldaketen erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen azaroaren 18an, 231. Aldizkarian Jendearurreko epea bukatu ondoren behin betiko onespena ematea dagokio estatutuen aldaketari eta horrela onartzen dute bildutakoek aho batez.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIOZ
2026/02/03

SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/02/03

9.- Mozioak.

Ez dago moziorik.

Gai zerrendatik kanpo beste gai bat aztertzeko daudela adierazten du alkateak, eta azaldu ondoren zertaz diren bildutakoek aho batez gai zerrendan sartzea onartzen dute, biak hala biak aurreko ogasun batzordean aztertuak geldituko direlako.

2026. urteko aurrekontua. Hasierako onespena.

Alkateak azaltzen du ogasun batzordean aztertu dela 2026. Urterako aurrekontu proposamena, hasierako onespena emateko prest legoke. Inbertsio bezala sartu dira garraio zerbitzua, Baso Babeslearen 2. Fasea eta eskolako inguratzaile termikoa. Gastu guzti hauek diru laguntza izango dute.

Behin behineko gastuak 1.458.390 eurokoak dira, eta sarrerak 1.488.670 eurokoak.

Sarrera berezi bezala daude industria guneko lursailen salmenta. Hortaz aurrekontua orekatua egonik eta 1988/270 Foru Dekretuaren 18. Artikulua jarraituz, bildutakoak hasiera batez onartzen dute 2026. Urteko aurrekontua

10. - Batzordeen informazioa.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa.

Ttikiena haur eskolako hezitzaileen zerrenda egiteko prozedura hasi da, eta izengaiak urtarila arteko epea dute eskaeran aurkezteko.

Oihanzabal eskolako irakasle gelako berogailua hautsi da eta berri bat erosiko da.

2026ko Nafar Gobernuako aurrekontuan, enmiendakina bidez onartu dute 240.000 euroko laguntza ematea eskolako inguratzaile termikoa egiteko.

11.- Informazio orokorra.

- Ihabengo aisialdi guneko obra urtarilean hasiko da, baso babeslearen 2. Fasearekin batera.

- Beteluko adinduen egoitza eskualdeko udalen esku uzteko prozesua abiatu zuen Nafar Gobernuak, esku publikoen kudeatu dezaten, egun dagoen enpresak zorrak garbitu ondoren. Bileran jarraitzen dute eskualdean ikusteko ze forma juridiko eman kudeaketa horri.

12. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 20:08 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du

